


# ⇒ Hizpide ⇒

## Ipuinekin hausnartzen

Antton Irusta

*Antton Irustak oso ibilbide zabala eta luzea du ipuingintzaren munduan, asko dira berarekin aho bete hortz geratu diren haurrak (eta helduak) eta hemen bildu ditu bere esperientziatik abiatuta zenbait gogoeta.*



«Ipuin gehientsuenak eta seguru asko onentsuenak, antzinako arbasoengandik jasotako ondare literarioa dira, eta sortu diren bezalaxe belaunaldi berriei ahoz helarazteko betebeharra daukagu. Eta ez sentimentalismo kezkatu hutsagatik, hitza beti ordezkazina delako baizik, batez ere haurtzaroan.

Ipuin irakurriak ez du edukiko ahozkoaren erakarmen edo lilurarik, edo jatorrizkoaren xarmarik, ezta ere bere keinu, begiratu, eta pentsamenduaren hunkipen zirrargarriaz lagundurik.»

ELENA FORTÚN, 1941

## ***Hizkuntz-ekintza***

Ipuinak kontatzea/entzutea hizkuntz-ekintza pribilegiatu bat da, bere baitan bi ezaugarri dituena:

–Batetik, komunikazio zuzena eskaintzen duen egoera bat da, non igorle bat (kontalaria) hartzaile batekin edo batzuekin (entzuleekin) harremanetan jartzen baita eta mezu bat igortzen baitie, giza bitarteko baten bidez (kontalariaren hitza).

–Bestetik, komunikazio-ekintza hori, arte bihurtzeko parada bat da, kontalaria eta entzuleak zirrara edo kidetasun-aire batez inguratuta geratzen baitira, horrela imajinazioaren bitartez elkarrizketa ahalbidetuz.

Beste hitz batzuetan esanda, ipuinak kontatzea literatura formarik zaharretako bat da, baina ez horregatik apalagoa.

Horregatik, haurtzaroak historiaurrearen antza pixka bat ere baiduelako, esan genezake ipuinak kontatzea sentsibilitatea, irudimena eta jakinduria umeengan esnatzeko erarik egokienetako bat dela.

Gainera, testua kontalariak asmatua ez baldin bada, horrek komunikazio-eginkizun berri bat hartzen du «bir-sortzaile» gisa, mezua entzuleei helarazterakoan bere sentikortasun propioa erantsiz, arte dramatikoan zuzendariak eta aktoreek egiten dutenaren antzera.

Eta horri entzulearen parte-hartze aktiboa eranstean badiogu (ekintza aldebitakoa bihurtuz), narrazioa orduan eta aberatsagoa eta biziagoa bilakatuko dugu.

Hitza mugatua da, baina ipuinek bestearen barrura iristeko ahalmena ematen diote, gertakizun handiak edo egia txikiak transmitituz hizkuntzari sormenezko hainbat elementu erantsiz: pertsonaiak, argumentua, ingurunea, estiloa, ekintza. Eta, haurrekin batera, elementu guztiz berezi bat: kontatzailearen dohain partikularra.

## ***Zer eragin du ipuinak hizkuntzaren garapenean?***

Ipuinak garrantzi handia du hizkuntzaren garapen eta eskuratze horretan. Alde batetik, ipuinak irudimena lantzen du, eta munduaren ezagutzarako ahalbideak ugaltu egiten ditu. Beste aldetik, nolabait, barne-munduari eta kanpo-munduari izenak jartzeko modua da ipuina, eta, orduan, haurrari horrek mundua izendatzeko eta mundua ezagutzeko eta bereganatzeko baliabideak aberasten laguntzen dio.

Lehen sei-zazpi urte horietan haurrak barneratzen du hizkuntza, bates ere barneratzen du hizkuntza, batez ere gurasoen aldetik, eta gero, eskolara hasten denetik, hizkuntza hori nolabait ipuinen bidez





eta poesiaren bidez, kontakizunen bidez haurren hizkuntzarekiko sena era aberatsean formatu egingo da.

Ipuinak aukera ematen dio haurrari edozein lekutara eta edozein denboratara joateko, eta horrek nolabait jakin-mina edo ikasteko grina ere ematen dio haurrari. Ezezagunak dituen denborak, ezezagunak dituen espazioak, ezezagunak dituen jakintzak eskuratzeko grina edo irrika bat sortzen dio.

JUAN KRUIZ IGERABIDE

### *Zer eskaintzen dio ipuinak umeari?*

Ipuinak haurra munduaren aurrean jartzen du irudimenaren bidez. Gutxienez bi gauza eskaintzen dizkio: alde batetik babes; babes psikologikoa gurasoen ahotsaren bidez, gurasoen ahotsak haurra babesturik sentiarazten du, eta ipuina kontaktzen doakion heinean, babes hori nolabait indartu egiten da. Beste aldetik, buruan jasotzen ari den ezagutzak eta ikuspegiak ordenatzen laguntzen dio haurrari.

Nolabaiteko lasaitasuna eta esperantza ematen dio haurrari: haziko zara, eta orain egundoko gauzak eta beldurgarriak iruditzen zaizkizun horiek, gero zuk zerorrek dominatuko dituzu.

### *Ipuinak kontaktzeko pauso garrantzitsuak*

Ipuin bat kontaktzerakoan heldua zenbat eta naturalagoa izan eta bere barneko haurra zenbat eta biziagoa eduki, orduan eta kontalari handiagoa izango da. Ahotsa eta jarrerak landuago edukitzeak ere laguntzen dute, baina, nire ustez, hiru gauza dira funtsezkoak:

-Istorio bat edukitzea: zeure burua identifikatzen duzu istorio horren bitartez eta gustura sentitzen zara, emozionatzen zaituen istorioa duzu.

-Istorio hori kontaktzeko gogoia izatea: konta ezazu gogo handiz.

-Istorio hori kontaktzeko momenturik egokiena bilatzea. Istorioa hasi eta unerik egokiena ez baldin bada, agian munduko ipuinik zoragarriena kontatuko dugu baina une horretan ipuinik kaxkarrena izango da. Ipuin bakoitzak bere jeinua du eta oso erne egon behar da ipuinak kontaktzeko unean.

PELLO AÑORGA

### *Afektua*

Ipuina, berez, bidaia exotikoa eta abenturaz osatutakoa da. Bigarren tokian, ulertzeko besterik ez bada, ipuinek afektuaren dohaina eskaintzen dute.





Denok, gizon zein emakumeok, edozein adinetan A bitamina behar dugu, A afektuarena, estimuarena. Afektua bitaminarik beharrezkoena da bizi ahal izateko. Gasolina afektibo gutxirekin nekez abiatuko gara gure bizitzaren bide neketsuetatik barrena. Hori dela eta, hitzek, eraginkorrak izateko, afektudunak izan behar.

Maitasunaren beharra dugu, maitatuak izan nahi dugu. Umetxo bati ipuin bat kontatzean zera diotsogu: «Begira, ipuintxo bat estima handiz kontatzera noakizu, bihotz-bihotzez gainera». Eta kontatzera goazenean esaten ari gara: «kontatzen dizut estimatzen zaitudalako, maite zaitudalako, baloratzen zaitudalako».

Hori guztia bere ondoan egonda eta belarririxora esanda adierazten diogu. Dohain hori, estimuaren dohaina da.

Nor izango dira kontalaririk bikainenak? Umeen maila afektibotik hur-hur daudenak: gurasoak.



Zein dira, ba, hurbilen ditugun ipuinak? Pentsatzen hasten bagara, zalan-tzarik gabe, kili-kili eginiko ipuinak dira, pentsarazi eta sentiarazi ziguten ipuinak.

Sehaska kantek, babestu gintuzten hitz horiek indarra eman ziguten bizitzeko. Portaera afektibo horrekin hazten den haurra osasuntsuago haziko da eta, munduan aurkituko dituen oztopoak gainditzeko ahalmen gehiago izango du.

Pako Abril ipuin-kontalari ospetsuaren aipu batekin amaitu nahiko nuke.

«Hala ere, ipuinik hunkigarrienak eta osasungarrienak, zalantza barik, gurasoek seme-alabei kontaturikoak ditugu. Kontu-kontari jardunez, seme-alabei heziketarako funtsezkoa den beste bitamina bat ematen diete, hots, M bitamina, Maitasunarena. Umeei ipuin bat kontatuz, maitatzen eta baloratzen ditugula diotsegu eta aintzakotzat hartzen ditugula ere bai.»





### ***Ipuina ondo aukeratu***

Kontalariak, hasteko, ondo aukeratu behar du zer ipuin kontatu. Ipuin-kontakteta komunikazio-jarduera denez, ondo aukeratzen jakin beharko du kontalariak ipuina, berorren emozioa dastatu ahal izateko. Erabat identifikaturik egon behar du ipuinarekin bere inplikazio animikoa osoa izan dadin eta entzuten ari den haurari berori transmitituko badio.

Zeren ipuina, ez ahaztu, afektibitatearen lokarriaz zein emozioaren karioiaz biltzen jakin behar dugun oparia baita, Lewis Carroll-ek dioen bezala, maitasunezko oparia; gustu estetikoez gain hauraren maila ebolutiboa gogoan daukana.

Kontalari bakoitzak bere larrua eta jantzia daukan bezala, ipuina ere gorputzean sartuta dauka, pertsonaia komikoz, lirikoz edo dramatikoaz osatua; ipuina egoki adierazten jakin beharko du ipuin bakoitzari dagokion partitura interpretatuz.



Ipuinek beste denbora baten atea irekitzen dute, denborarik gabeko denbora, denbora gelditua. Eta denbora horretan bizi direnak, ez dira inoiz zahartzen eta ez dira inoiz hiltzen, ipuinetako pertsonaiak bezala.

Badira urte batzuk kontu-kontari ari naizena askotariko entzuleriaren aurrean, eta egun, oraindik nahiko urduri eta artega jartzen naiz kontatze-orduan. Ez dakit bildurkilik ote nagoen eta nire ustez bildursartu hori betiko geratuko zait.

Dena den, motorrak berotu ahala, badirudi moteltzen ari dela.

Ipuinek harrera ona, abegi zintzoa, babesa eta, era berean, onarpen beroa behar dute gure barnean. Era horretan, gure sentimenduek babestuta, gu bezala haz daitezke, eta neurritz hazita daudenean, arnasa hartzen lagun diezaiekegu, ondoren kontatzeko.

Harrigarria da gizakioi ipuinei gertatzen zaien antzera gertatzen zaigula ikustea. Guk, gizakiok, beste batzuen laguntza behar izaten dugu, euren barruan har gaitzaten. Zergatik? Pertsonak eta ipuinak mugimenduan gaudelako beti eta gizakiok eta ipuinok babestuta egotea behar dugulako, izana eskuratzeko eta bizi ahal izateko.



Ipuin bat kontatzeko orduan funtsezkoena zerbait kontatzeko nahia da, komunikatzeko desioa. Horrexegatik, kontatu nahi dugun horrek gure barnean hazi beharra du. Gizaki bakoitzak igarri behar du zein diren bizi ahal izateko eta kontatzeko dituen detonaztaileak, horietako bakoitza piztean sorrarazten duen sua baita arima elikatuko duena.

Zer dauka istorio batek entzuleria liluratzeko, kontatzen ari zarenean pertsona bati begietara begiratu eta aurpegi berezi horiek ikusteko?

Argi dago entzuleriarekin kronpomiso bat dagoela, entzuleriarengandik erantzun bat jasotzen dugulako. Begiratu besterik ez dago.

Nire ustez, ipuina komunikazio-bide ikaragarri handia da, intentsitate handiko ekitaldia, baina, sarritan iraupen gutxikoa. Hori dela eta, disonibilitate handiagoa izan beharko genuke, ipuin bat kontatzea transzendentzia osoko ekitaldi bat baita.







Ipuinak bizitzaren errekaen modukoak dira; bada zerbait inork ezin duena ulertu. Ura edota airea bezalakoak dira; hor daude eta guk haiekin egiten dugu topo.

Zerbait kontatu behar dudanean? nire buruari galdetzen diot, hots, zer kontatuko dut? Nola kontatuko dut? Zergatik? Zertarako? Eguneroko kontagintza jardunak ematen dit galdera horien erantzuna.

Gure kultura guk uste baino ahozkoagoa da; jendeak irratia eta telebista entzunez denbora gehiago ematen du egunkariak eta liburuak irakurtzen baino, eta hori telefono mugikorrek kontutan hartu gabe.

Hizkuntza idatziak une eta lipar hori izozten du berba ederrak sortuz, baina ahozko hizkuntzak bat-batekotasunaren edertasuna du. Horrexegatik ahozko ipuinak birlantzea eskatzen du, berrosatze-bide bat. Ipuin tradizionalak dira dudarik gabe biderik gehien egina dutenak, ahoz aho etorri baitira. Beraz, kontatzea estreinatuta dauden zapata batzuk jartzea bezalakoxea da, ibilaldiari aurre egiteko prest.

Ipuinetan, bizitzaren betiko jokia islatzen da, ipuin bakoitza ispiluaren zati txikitxo bat da; zati bat non gizon eta emakume orok, behin berrosatuta egon ondoren, islatuta ikus baitezake bere burua duintasun osoz.

Zer egiten dut nik neuk kontatzen dudanean? Konturatu naiz zerbait kontatzen dudanean nire buruari ipuin bat kontatzen diodala, hau da, nire artean ipuin bat kontatzen dut, egia esanda.

Liburu batean irakurri dudan istorio bat kontatzen dut nirekiko. Liburuek kontatu dizkidaten istorioak kontatzen ditut begien bitartez, entzule horien aurpegien bitartez.

Barrutik kontatzea, barne-barnetik, bihotz barrenetik, sabel barrenetik buruaren bitartez, baina ez buruarekin.

Burua, memoria, ahotsa, keinua, intuizioa, begirada eta berbak erabiltzen ditut, baina ez nago horretan pentsatzen.

Barrutik kontatzen dudanean sentitzen dut benetan kontatu dudala, barrurako bidaia sortu denean entzule bakoitzarengan.

Kontalariak kontatzen duenean, une horretan gorputz eta espirituz dago entzuleen aurrean, baina nire ikuspuntutik ez da ezer egin behar, ez dago ezer bortxatu beharrik. Edozein keinuk, txikia izanik ere, adierazkorra izan behar du; bestela, keinu horrek berbari adetasuna kenduko dio.

Betiere, nire kontaeran pentsatzean, Sara C. Bryan-ek egiten duen deskribaketa bat datorkit burura. Aspaldian irakurri nuen haren liburua: *Ipuinak kontatzeko artea*.



## ⇒ Hizpide ⇒



Berak dio, kontalaria dela leiho baten bitartez zerbait ikusten ari dena; orduan kontaktzen ari dena leihotik begiratzen ari da, eta ikusten ari da zer gertatzen ari den, eta kontaktzen ari zaie gela barruan daudenei berauek ez baitute ezertxo ere ikusten.

Guk kontaktzen dugunean ipuin bat, inplikaturata sentitzen gara ikusten ari garenarekin, esan genezake barrutik ikusten dugula. Barrutik ikusten ari gara, barrurantz begiratzen ari gara, leihotik barrurantz begiratzen ari gara, eta horixe da entzuleei kontaktzen ari gatzaizkiena.

Guk kontalariok, intuitiboki, aurrean daukagunari erantzuten dio-gu, konturatzen ez bagara ere. Kontatzera noanean, hasteko zerbait, zirraren bat sentitu beharra dut lehenik; tokiaren eta entzulearen zirrara. Bada segundo batzuetan esango banie bezala: zuekin nago, niri kili-kili egiten didana kontaktu nahi dizuet.

Ipuinak funtziona dezan, ogia bezala, beharrezkoa da behin eta berriz oratzea, behin eta berriz kontaktzea. Guk kontaktzen dugunean, zerbaitek gure barruan kili-kili egiten digulako da eta zerbait hori besteei eman nahi diegulako.







## Zer behar da ipuinak kontatzeko?

**1.** Ez da aktore izan behar ipuinak kontatzeko. Gure aitona-amonak ez ziren aktoreak, ez zuten teknika bat. Horiek intuitiboki ikasten zuten, eskuak eta ahotsa modulatuaz. Kontalariak zerbitzari papera egin behar du zuzeneko komunikazio bat gara dezan.

**2.** Ipuinak emozionatu egin behar du kontalaria; bestela, ipuinaren xarma nekez transmitituko du. Behin, gazte batek esan zidan ipuin bat konta niezaiola: konta ieza dazu ipuin bat, baina KONTATU GOGOZ.

**3.** Ipuin bat kontatzeko, zuzenean ekintzara joan behar da: eta bat-batean.

Nire ipuin-emanaldietan, behin umeen aurrean kontu-kontari jardutean, aldarrikatzen dut euren gurasoak bertan egotea. Gurasook ipuin-kontalari bihurtzea litzateke nire nahia. Aholku txikitxo bat ematen diet umeen aurpegia jartzen duten guraso horiei: zer kontatu izatea, eta istorioa gustatzea.

Kontalariok badakigu zer-nolako ahalmena dugun; entzuleen aurpegian begiratu besterik ez dago, eta nik uste dut kontatu ditugun guztiok konturatu garela horretaz.

Liluratu egin dezakegu, dibertitu, irakatsi baina beldurrarazi, manipulatzen eta behartu ere bai. Beharrezkoa da hori ere jakitea ipuin bat ez delako arma bat, ezta tranpa bat ere, ezta txantaje bat ere. Ipuin bat afektua baino ez da.

## Reflexionando sobre el arte de contar cuentos

*Después de un largo período contando cuentos por los diferentes rincones del País Vasco (fundamentalmente), Antton Irusta ha echado la vista atrás y ha elaborado un artículo donde recoge sus reflexiones tras tantos años de experiencia como cuentacuentos.*

*Antton tratará de responder a diferentes preguntas a lo largo del artículo, como pueden ser las siguientes: ¿Cuál será la influencia del cuento en el desarrollo del lenguaje? ¿Qué ofrece el cuento al niño o a la niña? ¿Qué consideraciones hay que tomar en cuenta antes de contar un cuento?*

## Thinking about storytelling

*After a long time telling stories, mostly all around the Basque Country, Antton Irusta has looked back and elaborated an article where he gathers all his thoughts after so many years of experience as a storyteller.*

*Alone this article Antton will try to answer to different questions as the following ones: Which is the influence of the story on language development? What does the story offer to the child? What has to be considered before telling the story?*

GARBIÑE ARREGUI

Kontalariaren giza papera aldarrikatzen dut eta daukan zintzotasun-konpromisoa ere bai. Narratzailearen papera da bere tresna. Beraz, duen etika da lan hori zehaztuko duena. Honekin esan nahi dut ipuinen mezua barren-barrenetik atera behar dela, alde zurretik pentsatu gabe.

Zenbaitetan pentsatzen dut errespetu osoz narratzaile lasai, bare eta ia-ia geldi-geldi egoten ziren geure aitona-amonengan. Pentsatzen dut haien adimen duinean, haien adimen lotsati eta era berean harro hartan, txiki-txikitan kontatzen ziguten ipuin askoren zaintzaile ziren aitona-amonon haiengan.

Bestalde, egungo kontalariok gaude, ipuin-biltzaileok, sarri askotan kontatzen gure barnean sendotu bako ipuinak. Onartuko ote dugu ahozko kontagintza kontsumogai izatea, erabili eta botatzekoa izatea? Gastatu egingo ote dugu berba, ala duintasunez erabiliko?

Nire ustez, gaur egun, ipuinen egoerak eta panoramak etorkizun handia du. Bide honetan badago zer egin, zer kontatu eta zer sortu. Zenbat langintzak nahiko lukete eginkizun hori eduki!

«Lehenago, satorrak begiak zeuzkan eta buztanik ez. Egun batean igel bat aurkitu zuen. Igelak buztana zeukan, begirik ez, ostera. Euron gauzok aldatu behar zituztela asmoa hartuta, satorra begirik gabe gelditu zen, buztanik gabe igela.»

«Haiek han eta gu hemen,  
gure ipuinak Flandesen eta Parisen.  
Gure txepetxak bizkarrean hezurra,  
eta kontatutako guztia, egia ala gezurra.»

Herri-ipuinen amaiera.

# Ipuinak ongi kontatzeko dekalogo gisako bat

Koldo Amestoy

*Koldo Amestoy ipuin-kontalariak ez du aurkezpenik behar, izan ere, izen handia du ipuin-zaletuen artean. Euskal Herriko ia txoko guztietan aritu izan da ipuinekin jendea txoratzen, eta jarraian ipuinak ongi kontatzeko dekalogo bat aurkeztuko digu.*



**1.** Kondaira, kontakizun, anekdota, zurrumuru edo beste edozein kontaketa mota entzun eta jasotakoa, irakurria edo zerorrek asmatutakoa, publiko bati zuzenean kontatu nahi diozun hori, hitz orokor batean «ipaina» deituko dugu. Lehenbizikorik, ipuin horrek zure gustukoa izan behar du. Derrigorrean. Testu honekin izanen duzun lehen harremanak atsegin zerbait piztu beharko dizu gogoan, eta gorputzean berdin... Zure bideko laguna izango baita... Zure biziko konplizea, beharbada!...





2. Ipuin hori kontatzeko gogoia izanez gero, bere testua ezagutzeko lehen pausoak eman beharko dituzu. Hortarako, irakur ezazu behin baino gehiagotan, eta gero baztertu, ahaztu... Jakinez zure baitan egingo duela bere bidea, zuk nahi ala nahi ez. Berantago testua berriz harturik, ikertzen eta aztertzen has zaitezke: begien bistara agertzen dizun lehen planoaren atzean zer daukan ikus dezazun. Eta lehenengo irakurketan kontatu dizunaz besterik ezkutuan ba ote duen aditu dezazun...

3. Bere nortasuna, kolorea, zaporea, irudia, mezua, erritmoa, doinua, hots, bere sekretu guztiak zulatu dituzula uste duzularik, ikas ezazu hitzez hitz. Eta azkenean ongi dakizularik, zure gogoan sartuta daukazula eta menperatzen duzula seguru zaudelarik, testua baztertu ezazu berriz ere. Eta berehala kontatzen has zaitez zure hitz, irudi, keinu, doinu, kar eta kemen guztiarekin... bere haria ikasirik, zure haritik hasiz...

4. Berantago, ogi edo pizzarentzat egiten den bezala, pastak oratuta atseden har dezan, denbora batez utz ezazu berrirori pausatzerara, astiro-astiro zure gogoan barrena galduko da, emeki-emeki zure baitan murgilduko, zurea bilakatu arte.





5. Ipuina zureganatu duzula, zure zera da orain. Baina, ederkiago janzteko eta apaintzeko, ahozko lagunik behar edo nahi ote duen ikus ezazu: elkarrizketa, olerki, formula berezi, onomatopeia, alboko anekdota, musika edo kantu, isiltasun eta arnasarik, sinonimo eta azalpenik... Kontuan harturik ez dituzula kontatzerakoan detaile sobera eman behar, ez duzula zure ipuina gehiegi kargatu behar, alde batetik, zure testua pisuegia ez izateko, eta bestetik, publiko-kide bakoitzari bere gogoan irudiak pizteko aukera eman, eta bere baitan istorioa biziartzeko askatasuna utzi behar diozulako. Azkenik beraz, hautatu dizkiozun osagaiak erants egizkiozu apurka-apurka, zure lanak oreka ona eta osotasun ederra daukala sentitu arte... Orain prest da. Prest zaude ipuin hori kontatzeko, berarekin jolasteko eta entzuleari pozik eskaintzeko...


6. Entsaioak etxean abiatzea hobe; zure logelako paretari edo leihotik kanpoari begira konta dezakezu, adibidez. Behin eta berriro. Isilik gelditzen bazaizu horma, ez badizu komentariarik egiten leihoak, iñork bere iritzirik ez badizu ematen, hobe zuretzat. Zure horma edo leihoaren isiltasunak erran nahi du ipuin hori orokorki gustatu zaiola. Pozik geratuko zara, beraz, nahiko ongi kontatu diozulako. Baina, ez balu batak edo besteak zure ipuina bere

gogokoa izan, oldartuko ote zen? Tente eta mutu egon bazaizu, pareta edo leiho hori, zer esan nahi du ba, era horretan bere ezadostasuna agertu nahi dizula, ala? Horra nola pizten diren hortik aurrera, artistaren duda eta mudak, zalantza eta malantzak... Hortik aurrera, zure lanak eginik eta aurkeztu ondoren, zure buruarekin inoiz ez zara adosean jarriko. Beti izango duzu grina zerbait hemendik, kezka handik... Umiltasunaren eskolan zaude laguna... Ongi etorri !

7. Orain prest zaude publiko baten aitzinean kontatzeko. Zure logelako «entzulegoaren» oztupoa gainditurik, «epaile» hain hotza eta motza izanik, ziur izan zaitez, hortik at beste edozein publikoren aurrean aurkez dezakezula zure obra. Baina kontuz hala ere! Zure lehen urratsa leku eta memento hautatuan hobe duzu egitea, eta publiko berezitu edo lagun fidagarriei eskaintzea.

8. Publikoak aurretik jakinean izan behar duen ala ez? Lehenengo aldiz, eta gero ere tarteka, hobe duzu ahal den neurrian, zure publikoa izan den jende horri alde aurretik deus ez salatzea. Egia esan, zure lagun minak zerbait baldin badaki, ongi da. Horrela, gutxienez konplize bat daukazu lekuan, eta lagungarri izan daiteke. Eta hortxe, bertako egoera nola sentitzen duzun, eta orduan, zure urduritasuna zerrorek neurturik, bat-batean abiatuta, denen ezustean kontalari pausoa eman dezakezu lasai eta atseginez. Edo, horko giroa ez bazaizu egokia, hauta dezakezu ez joatea ere, eta gerorako uztea. Aldiz, zure kuadrilako lagunak hasieratik baldin badakite ipuin bat kontatu behar duzula, aurretik sekulako estresa emango dizute, eta horrez gain, horiek nahiko dutelarik, edozein mementotan eta nolanhika sartu beharko duzu kontu-kontari jokoan.

9. Zer okasio eta tokitan konta dezakezun? Lagunarteko gualdi lasai bat antolatua dela gela baketsu batean, jendeak bildu ondoren, gogo eta mingainak nahiko freskotxo daudela, edalontzi eta botilak ez direla oraino dantzan jarriak, kantu eta musikak ez dituztela piztuak, orduan ausartu zaitezke. Eta ez gerorako utzi, «gero dionak bego dio» ez izateko! Altxa zaitez orduan, doi bat urrundu, eta berehala, lagunak aldera biratu. Guztiak begien bistan dituzula eta, denek ikusten eta entzuten zaituztela ziurtaturik, har ezazu orduan hitza. Bi eletan komenta ezazu zure xedea, zertarako edo nori eskaini nahi diozun zure lana, eta jarraian ipuina kontatzen hasi. Ondoren, lasai-lasai, txaloak entzun, denen goresmenak gozatu, eta jendea eskerturik, zatoz berriro zure lagunetara. Baina kasu! Holako batez, taberna-giro eta afari-asmoa baldin bada zure inguruan, ez du balio ezertara saiatzeari, zure borondate onak eta ipuina moldatzeko soilik eta aspalditik egin dituzun lan guzkiek merezi baitute atsegintasun eta adiskidetasun, edo gutxienez bake eta errespetu.







**10.** Eta hortik aurrera zer egin? Ba, lagunen begiek eman dizute erantzuna. Dirdiratsuak bazituzten eta ezpainak irribaratsu... Zorionak! Kontalaritzan pauso berri bat gehiago eman dezakezu, beraz. Lehendabizi, bakar-bakarrik, ipuinak hautatuz, landuz eta zure logelan kontatuz, «zure baitako kontalaria» bi-latzen eta egituratzen segituko duzula. Ipuinak, taulada gainera ere erakarriko zaitu, holako batez. Hainbat begik ikusiko zaitu orduan, eta beste horrenbeste belarrik zure hitzak entzungo ditu. Ederki! Gero, berantago, beste kontalari lagun batzuekin kontu-kantari topaketa eta trukaketak antola ditzakezue. Eta urteekin, ipuinaz bestalde, kontalaritza ere zeureganatu duzula, hainbat esperientzia egin dezakezu, beste artista batzuei eskua luzatuz eta horiekin zure hitza trukaturaz. Beraz, bidaia on zuri, ipuinen bidetik!

Hazparne, 2010-09-01  
[www.koldo-amestoy.com](http://www.koldo-amestoy.com)

## Una especie de decálogo para contar bien los cuentos

*Tal y como indica el título del artículo, se nos presenta una especie de decálogo para contar bien los cuentos.*

*Así, tomando como referencia estos diez puntos nos acercáramos a la fórmula idónea para contar cualquier cuento.*

*El primero de los puntos, a modo de ejemplo, indica que el cuento a contar debe ser del agrado del cuentacuentos. El segundo de los puntos, sugiere que el cuentacuentos lea y conozca el cuento antes de contarlo, luego lo deje madurar y posteriormente lo retome. El tercero...*

*En definitiva, estos diez puntos son un conjunto de recomendaciones para cualquier persona que quiera sumergirse en la bella actividad de contar cuentos.*

## A kind of decalogue to tell stories

*As its title shows this article introduces us a Decalogue to tell stories properly.*

*Taking these ten points as a reference, we will be close to the suitable storytelling formula.*

*Its first point, for instance, shows that it is essential that the storyteller likes the story to be told. The second of the points suggests that the storyteller has read and known the story before telling it, after that it has to be thought out until it will be taken up again. The third point...*

*Therefore, these ten points are a group of recommendations for those who want to be immersed in the beautiful activity of telling stories.*

GARBINE ARREGUI